



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ekologia eta Osasun Publikoa
Ecología y Salud Pública



SENTSIBILIZAZIO KANPAINA BATEK ISURI GUTXIKO EREMUAREN ONURAK AZALDUKO DIZKIE IKASLE DONOSTIARREI

Ekologiako Zinegotzigoak, Cristina Enea Fundazioaren laguntzarekin, eskola-kanpaina bat jarri du abian Isuri Gutxiko Eremu bat ezartzeak ingurumenean eta osasunean izango dituen ondorioak ezagutarazteko.

Donostiako Udalatzak ISURI GUTXIKO EREMUA (IGE) arautzen duen ordenantza behin betiko onartu ondoren, indarrean sartu aurreko azken izapide administratiboa burutu da. Horrela, egokitzapen- eta informazio-aldi bat hasiko da, herritarrok erregulazio berriarekin ohitu daitezen eta zuzeneko baimenik ez duten pertsonek dagokien baimena izapidetu ahal izan dezaten.

Isuri Gutxiko Eremuari buruz herritarrek dituzten zalantzei erantzuteko arreta-bulego bat irekitzeaz gain, Udalak sentsibilizazio-kanpaina espezifiko bat hasi du udalerriko ikasleen artean. Helburua IGEren ezarpenak 2025eko urtarrilean indarrean jartzen denean ekarriko dituen onura sozialak eta ingurumenekoak ezagutaraztea da.

Ekologiako zinegotzi Iñigo Garcíak gogorarazi duenez, "Isuri Gutxiko Eremuan kutsadura-maila handiak igortzen dituzten ibilgailuen zirkulazioa mugatzen da, airearen kalitatea hobetzeko eta kutsadura murrizteko. Hirian, eremu horrek 1,2 Km²-ko azalera hartzen du, eta hiriaren erdialdean dago. Neurri horiekin lortu nahi dugun helburua airearen kalitatea eta osasun publikoa hobetzea da, Isuri Gutxiko Eremuan ezingo baitute zirkulatu gehien kutsatzen duten ibilgailuek".



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ekologia eta Osasun Publikoa
Ecología y Salud Pública



Eskola-kanpaina oso parte-hartzailea

IGE ezartzeak pertsonen osasunean eta planetaren iraunkortasunean eragin positibo nabarmena izango duenez, ahalik eta pertsona gehienei ezagutaraztea da helburua. Horretarako, azaroaren 25etik aurrera, bi ahizpa berezik Donostiako ikastetxeak bisitatuko dituzte, eta, umorean oinarritutako ekintza parte-hartzaile baten bidez, eskola inguratzen duen espazio publikoa nola hobetu dezaketen irudikatuko dute. Irudimena izango da muga bakarra, eta lorategiek, espazio publikoak, parkeek... eta autoek zein paper jokatuko duten erabaki ahal izango dute.

Gariak gogorarazi duenez, "programa hau hausnarketa kolektibo baten hasiera da, gehien kutsatzen duten ibilgailuen zirkulazioa mugatzeari eta horrek ekarriko dituen hobekuntzei buruz. Adibidez, kutsadura atmosferikoa murriztea eta, beraz, arnasten dugun airearen kalitatea hobetzea, kutsadura akustikoa murriztea edo garraio publikoaren erabilera handitzea... Horrek guztiak espazio publikoaren errekuperazio sozialean eta ohitura osasungarriagoak erabiltzen lagunduko du, hala nola erdialdera joateko oinez ibiltzea edo bizikletaz joatea. Eta, jakina, ibilgailuek isurtzen dituzten berotegi-efektuko gasen murriketak klima-aldaketaren erronka handiari aurre egiten lagunduko du."

Jarduera-egutegia

Azaroaren 25etik aurrera, astelehena, eta eskolako oporretara arte, bi ahizpa berezi horiek (Lur eta Saioa) ikastetxeak bisitatuko dituzte eta ikasleekin dibertituko dira, guztien artean hiri atseginagoa, seguruagoa eta iraunkorragoa irudikatzen duten bitartean.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ekologia eta Osasun Publikoa
Ecología y Salud Pública



UNA CAMPAÑA DE SENSIBILIZACIÓN EXPLICA A ESCOLARES DONOSTIARRAS LOS BENEFICIOS DE LA ZONA DE BAJAS EMISIONES

La Concejalía de Ecología, con la colaboración de Fundación Cristina Enea, pone en marcha una campaña escolar para dar a conocer los efectos que el establecimiento de una Zona de Bajas Emisiones tendrá en el medio ambiente y en la salud.

Tras la aprobación definitiva, por parte del Pleno municipal, de la ordenanza que regula la Zona de Bajas Emisiones (ZBE) de Donostia / San Sebastián, se ha completado el último trámite administrativo antes de su entrada en vigor. Comenzará así un periodo de adaptación e información para que la ciudadanía pueda familiarizarse con la nueva regulación y para que aquellas personas que no cuenten con autorización directa puedan tramitar la autorización correspondiente.

Además de la apertura de una oficina de atención destinada en exclusiva a atender las dudas de la ciudadanía sobre la Zona de Bajas Emisiones, el Ayuntamiento ha iniciado una campaña específica de sensibilización entre la población escolar del municipio. El objetivo es dar a conocer los beneficios sociales y ambientales que la implantación de la ZBE traerá cuando entre en vigor en enero de 2025.

El concejal de Ecología, Iñigo García, ha recordado que “la Zona de Bajas Emisiones es el área urbana donde se limita la circulación de vehículos que emiten altos niveles contaminantes para así mejorar la calidad del aire y reducir la contaminación. En la ciudad, esta zona abarca una superficie de 1,2 Km², y se sitúa en la zona Centro de la ciudad. El objetivo que perseguimos con estas medidas es mejorar la calidad del aire y la salud pública, ya que en el ámbito de la Zona de Bajas Emisiones no podrán circular los vehículos más contaminantes.”



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ekologia eta Osasun Publikoa
Ecología y Salud Pública



Una campaña escolar muy participativa

Dado que la implantación de la ZBE generará un impacto positivo notable para la salud de las personas y la sostenibilidad del planeta, el objetivo es dar a conocerlos al mayor número de personas. Para ello, desde el lunes 25 de noviembre dos particulares hermanas visitarán los diferentes centros escolares donostiarras y, a través de una acción participativa basada en el humor, imaginarán cómo podrían mejorar el espacio público que rodea su escuela. La imaginación será el único límite y podrán decidir qué papel jugarán las zonas ajardinadas, el espacio público, los parques... y los coches.

García ha recordado que “este programa es el inicio de una reflexión colectiva sobre lo que supone limitar la circulación de los vehículos más contaminantes y las mejoras que ello conllevará. Por ejemplo, la reducción de la contaminación atmosférica y por lo tanto mejora de la calidad del aire que respiramos, o la reducción de la contaminación acústica, o el incremento del uso del transporte público... Todo ello contribuirá a la recuperación social del espacio público con seguridad y al uso de hábitos más saludables, como caminar para ir al centro o ir en bicicleta. Y por supuesto, la reducción de los gases de efecto invernadero que emiten los vehículos contribuirá a luchar contra el gran reto del cambio climático.”

Calendario de actuación

A partir del lunes 25 de noviembre y hasta las vacaciones escolares, estas dos singulares hermanas -Lur y Saioa- se dejarán caer por los diferentes centros escolares y se divertirán con el alumnado mientras entre todos imaginan una ciudad más amable, segura y sostenible.